

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

518/2019 Foru Agindua, azaroaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen baitira «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitortpen informatiboa» aurkezteko erabiltzen den 291 eredua eta haren aurkezpen moduak.

Abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduak «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitortpen informatiboa» izeneko 291 eredua onetsi zuen, baita haren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurraldeen kodeen zerrenda ezarri ere bai.

Foru agindu honen xedea da aipatutako 567/2016 Foru Agindua aldatzea, ereduan beste eremu bat sartzeko, arlo sektorialean indarrean dagoen araudiarekin bat. Helburua da eremu horrekin identifikatu ahal izatea hogeitertan kudeatu ezin izan diren kontuak, aitortuak identifikatzeko garaian izan diren arazoengatik.

Zentzu horretan, I. eranskinean, 291 ereduari buruz jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoen barruan, beste eremu bat sartzen da 2. motako erregistroan –aitortuen erregistroan–, eta lauki bat gaitzen da bertan horrelako kontuak identifikatzeko.

Hori dela eta, aipatutako eredua eguneratu behar da haren jarraibideak aldaketa horretara egokitzeko.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Abenduaren 14ko 567/2016 Foru Agindua, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitortpen informatiboa» aurkezteko erabiltzen den 291 eredua onartu eta haren aurkezpen moduak ezarri zituen, aldatzea.

Honela aldatzen da abenduaren 14ko 567/2016 Foru Agindua, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitortpen informatiboa» aurkezteko erabiltzen den 291 eredua onartu eta haren aurkezpen moduak ezarri zituen:

Bat. I. eranskinean, 291 ereduari buruz jasotzen diren diseinu fisiko eta logikoen barruan, eremu berri bat gehitzen da 2. motako erregistroko –aitortuaren erregistroko– 420. posizioan, «Ustez abandonatuta dauden kontuak» izenekoa, eta haren edukia honako hau da:

Posizioak: 420.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: Ustez abandonatuta dauden kontuak.

«X» jarriko da baldin eta, azaroaren 3ko 33/2003 Legean xedatutakoaren arabera, uste bada kontuak abandonatuta daudela aitortuak identifikatzeko arazoak egoteagatik.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 518/2019 de 17 de noviembre, por la que se modifica el modelo 291 «Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No residentes sin establecimiento permanente. Declaración informativa de cuentas de no residentes», y sus formas de presentación.

La Orden Foral 567/2016, de 14 de diciembre, aprobó el modelo 291 «Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No residentes sin establecimiento permanente. Declaración informativa de cuentas de no residentes», y sus formas de presentación, así como la relación de códigos de países y territorios.

Mediante la presente orden foral se modifica la citada Orden Foral 567/2016, con el objeto de incorporar al modelo un campo adicional que permita identificar aquellas cuentas respecto de las que que no se haya practicado gestión alguna en el plazo de veinte años, con problemas en la identificación de los declarados, conforme a la normativa vigente en su correspondiente ámbito sectorial.

En ese sentido se incluye un nuevo campo en el registro tipo 2, registro de declarado, de los diseños físicos y lógicos del modelo 291, contenidos en el anexo I, habilitando una casilla para identificar este tipo de cuentas.

Por ello, procede actualizar dicho modelo a los efectos de ajustar sus instrucciones a dicha modificación.

En su virtud

DISPONGO

Artículo único. Modificación de la Orden Foral 567/2016, de 14 de diciembre, aprobó el modelo 291 «Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No residentes sin establecimiento permanente. Declaración informativa de cuentas de no residentes», y sus formas de presentación.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 567/2016, de 14 de diciembre, aprobó el modelo 291 «Impuesto sobre la Renta de no Residentes. No residentes sin establecimiento permanente. Declaración informativa de cuentas de no residentes»:

Uno. Se añade un nuevo campo «Cuentas en presunción de abandono», que ocupa la posición 420 del registro de tipo 2, registro de declarado, de los diseños físicos y lógicos del modelo 291, contenidos en el anexo I, con el siguiente contenido:

Posiciones: 420.

Naturaleza: Alfabético.

Descripción de los campos: Cuentas en presunción de abandono.

Se consignará una «X» para las cuentas en presunción de abandono, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, con problemas en la identificación de los declarados.

Bi. 2. motako erregistroko –aitortuaren erregistroko– 420-432 posizioak –«Zuriuneak»– 421-432 posizioak izatera pasatzen dira –«Zuriuneak»–.

Azken xedapena.

Foru agindu hau indarrean jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera 2019. urteari dagokionez aurkeztu beharreko aitortuaren izenak izango ditu ondorioak.

Donostia, 2019ko azaroaren 17a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(7255)

Dos. Las posiciones 420-432 «Blancos» también del registro de tipo 2, registro de declarado, pasan a ocupar las posiciones 421-432 «Blancos».

Disposición final.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y surtirá efectos para la declaraciones a presentar a partir del 1 de enero de 2020, correspondiente al año 2019.

San Sebastián, a 17 de noviembre de 2019.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.
(7255)